

**ARAITZ, ARESO, BETELU, LARRAUN,
LEKUNBERRI KIROL
MANKOMUNITATEAREN 2018KO
DIRULAGUNTZEN DEIALDIA.**



kirolmank

ARAITZ-ARESO-BETELU-LARRAUN eta
LEKUNBERRIko KIROL MANKOMUNITATEA

**ESKAERA EPEA: OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 26ra
ENTREGA DE SOLICITUDES: DE 26 DE FEBRERO AL 26 DE MARZO**

LARRAITZ OSES RIPALDA
KIROL MANKOMUNITATEKO KIROL TEKNIKARIA

BURUNDEGIA, 9 – LEKUNBERRI (31870)
TEL.: 948-604545 / 649205310
kirolmankomunitatea@gmail.com



DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRIAK, KIROL JARDUERAK SUSTATZEKO ARAITZ-ARESO-BETELU-LARRAUN-LEKUNBERRIKO KIROL MANKOMUNITATEAN. 2018 URTEA.

Araitz-Areso-Betelu-Larraun-Lekunberriko kirol Mankomunitateak dirulaguntza deialdia egiten du, Mankomunitatearen aurrekontuak zehazten duen mugaren baitan. Deialdia, 2017-2018 denboraldian, udalerrri hauetan jarduten duten kirol klubei zuzenduta dago.

Lehenengo.- Xedea.

Dirulaguntza deialdi honen xede dugu Mankomunitatearentzako intereseko diren eskola adineko kirol jardueren sustapenean handitzea kirol klubene parte hartzea.

Dirulaguntzak bideratuko dira kirol klubek 2017-2018 denboraldian izan zezaketen gastuetan laguntzera. Bestalde, denboraldia esatean, 2017eko abuztuaren 1etik 2018ko uztailaren 31ra egindako jardun osoa esan nahi da.

Oinarri hauetan azaltzen diren betebeharez gain, bete beharrekoak dira Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, eta Uztailaren 21eko 887/2006 Erret Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorren Arautegia.

Bigarren.- Dirulaguntzen hartzaileak.

Legez eraturta dauden kirol klubek eska dezakete dirulaguntza, egoitza Mankomunitatearen partaide den edozein udalerritan badute eta izen emanda badaude Nafarroako Gobernuaren Kirol Entitateen Erregistroan eta Entitateen Udal Erregistroan. Soilik aurkeztu al dira Mankomunitatearekin hitzarmenik ez dituzten kirol elkarteak.

Hirugarren.- Diruz lagungarriak diren egitasmoak.

Diruz lagungarri izateko, kirol jarduera egitasmoak eskaria egin den denboraldian bertan gauzatuko behar dira eta eskolako adinean daudenen jarduera fisikoa lagundu behar dute.

Laguntzaren xede diren jarduerak hurrengo baldintzak bete behar dituzte:

1. Oinarrizko kirola sustatzea helburu duten jarduerak izatea.
2. Eskolako adinean daudenen ariketa fisikoaren praktika sustatzen duten jarduerak izatea. Jarduera hauek irekiak izan behar dute, honekin esan nahi da diskriminaziorik ez izatea genero, arraza, hizkuntza, ideologia, orientazioa eta abar. dela eta.
3. Herriko elkarte-ehundura sustatzen eta sendotzen duten kirol jarduerak izatea.
4. Kirol eta gizarte aldetik interesa duten jarduerak izatea baldin eta Mankomunitatearen beste laguntza lerroetan ez badaude jasoak.

Laugarren.- Dirulaguntzatik baztertzen diren jarduerak.

Berariaz baztertzen dira hurrengo jarduerak:

1. Kirol interes argia ez duten jarduerak.
2. Mankomunitatearekin jada itundu diren jarduerak, nor bere lankidetzat hitzarmena dela medio.
3. Mankomunitateak egin ohi duen eskaintza bikoizten duten jarduerak.
4. Etekina ateratzeko asmoa duten edota aisialdi pertsonalerako jarduerak.
5. Bazkariak, askariak, janaurrekoak, opariak (garaikurrak salbu), aparkaldi gastuak, norberaren kilometrajea, eta abar.
6. Inbentariatu daitekeen kirol ekipamendua eskuratzea.
7. Entitate eskatzailearen parte hartzea berak zuzenean antolatzen ez dituen jardueretan edo programetan, Mankomunitatearen interesekoak direnak salbu.
8. Kirol ekintzetan kirolari profesionalen parte hartzetik eratortzen diren gastuak, Mankomunitatearen interesekoak salbu.

Bosgarrena.- Aurkeztu beharreko dokumentuak.

Deialdi honetan parte hartzeko eskaria egiten duten klubek hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- 1.- Behar bezala betetako eskaera orria (1. Eranskina)
- 2.- 2017-2018 jarduera fitxa, (fitxa bat jarduera bakoitzeko) (2. Eranskina), begiraleen, taldeen eta ikasle kopuruaren datuekin batera, hala nola entrenamenduen ordutegiak, gastu eta diru sarrera aurreikuspena...
- 3.- 2016-2017 denboraldiko gastu eta diru sarreraren balantza ekonomikoa.

Eskaera osorik bete gabe aurkeztu bada edo programa behar bezala egiaztatua ez badago, Mankomunitateak eskaera zuzentzeko eskatu ahal du 10 laneguneko gehienezko epean, jakinarazten den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarren.- Eskaerak aurkeztu.

Eskaerak 30 egun naturaleko epean aurkeztu behar dira, oinarri hauek Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitatearen partaide diren Udalen Legezko Abisuetarako Iragarki Tauletan argitaratzen diren biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskaerak Kirol Teknikariaren bulegoan edo Lekunberriko Plazaola kiroldegian aurkeztu behar dira, kirol Mankomunitatearen izenean eta gutunazal itxian.

Zazpigarren.- Esleipen prozedura.

Banatzeko zenbatekoa, Mankomunitatearen 2018 urteko aurrekontuen arabera eta dirulaguntza deialdi honen helburu diren jarduerentzat, gehienez 3.500 € da.

Aurkezten diren eskaerak azertu eta baloratuko ditu ondokoez osatutako batzordeak: Mankomunitatearen Lehendakaria, Lekunberriko kirol zinegotzia, eta Mankomunitateko udal kirol teknikaria.

Mankomunitatearen Lehendakariak ebatziko eta komunikatuko du dirulaguntzen esleipena, gehienez, eskaera epea bukatzen denetik, hilabete bat beranduago.

Eskatzaileak beste erakunde batetik, publiko edo pribatu, jarduera honetarako dirulaguntza jasoko balu, kontuan izan beharko du bi dirulaguntza edo gehiagoren baturak inolaz ere ezin duela gainditu diruz lagungarria den jardueraren %100aren kostua, 38/2003 Legearen, Azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra, 19. artikulurekin bat.

Zortzigarren.- Ebaluaziorako irizpideak.

Diruz lagungarri diren egitasmo edo programen aukeraketa egiteko, ondokoa baloratuko da:

- Entitatearen urteko kirol programazioa, kirol jardunbidea eta horren jarraitutasuna.
- Eskola adineko kirola sustatzea eta bere jarduera zenbat ikasleri bideratzen den.
- Mankomunitateak antolatutako jardueretan klub eskatzaileak duen elkarlanaren tamaina, Kirol Zerbitzuaren bitartez edo bestela.
- Aurkezten den egitasmoaren soziokirol proiektzioa, eta gizarte eta kirol aldeko eragina, hala nola honen irekiera eta zabalkundea.
- Aurkeztu duen egitasmoan, klub eskatzailearen ekarpen ekonomikoa (babes ordainsariak, edo bestelako ekarpenak).
- Emakumezkoen kirola sustatzea eta emakumeak izatea honen egitura guztietan, gobernu organoetan, parte-hartzaileen artean, ekitaldietan...

Bederatzigarren.- Dirulaguntzen onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen onuradun diren klubek ondokoa bete behar dute:

1. Dirulaguntzaren esleipenaren oinarrian dagoen jardueren programa gauzatzea eta berau egiaztatu Mankomunitatearen aurrean zuriketa memoriaren bitartez, 2015ko abuztuaren 15a baino lehen. Hala nola, betetzea dirulaguntza honen esleipena edo gozamina zehazten dituzten betebeharrak edo baldintzak.
2. Kirol Teknikariari jakinarazi, lehenbailehen, aurkeztu den programan egiten diren aldaketak.
3. Mankomunitateari eman, honek behar dituen edo beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak.
4. Dirulaguntza jaso duten jardueren publizitatean, Mankomunitatearen laguntzaren berri eman. Publizitatea euskaraz egin behar da, eta euskaraz eta gaztelaniaz egiten bada euskarri berean izan behar da eta lehentasuna emanen zaio euskarazkoari (elebitasun normalizatzailea) eta, bestetik, hizkera ez-sexista erabili behar da. Publizitate guztiei dagokionez, kartelak, eskuko programak, prentsa iragarkiak, eta abar., Kirolmank-en logo ofiziala agertu beharko du laguntzaile gisa, dirulaguntza jasotzeko ezinbesteko baldintza da.

5. Euskararen erabilera: Derrigorrezkoa izanen da begirale-entrenatzaile guztiak elebidunak izatea eta euskara erabiltzea ohiko komunikazioan, bai entrenamenduetan eta baita partiduetan ere, horrezaz gainera, diruz laguntzen den jarduerarekin lotuta dagoen eremu osoan ere erabili behar da. Lekunberriko udalean erregistratutako klubaren kasuan, "Lekunberriko udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen" Udal Ordenantza bete beharko dute.
6. Entitate onuradunak Mankomunitateari jakinarazi behar dio, helburu bererako, beste edozein Administrazio edo entitatetik jasotako bestelako dirulaguntza edo laguntza.

Hamargarren.- Justifikazioa eta Ordainketa.

Dirulaguntzen ordainketa bi epetan egingen da: hauen %50a deialdiaren ebazpena jakinaraztean eta beste %50a zuriketa memoria aurkeztu ondoren (4. eta 5. eranskinak). Memoria honetan egiaztatuko dira, batetik, entitate onuradunak dirulaguntza jasotzea ekarri duen egitasmoa gauzatu ote duen, eta, bestetik, oinarrietan ezartzen diren betebeharrak bete ote dituen.

Batzordeak, dirurik balego eta egoki estimatuko balu, bigarren ordainketa handitu dezake. Era berean, bigarren ordainketa ez egitea erabaki dezake aurretik azaldutako betebeharrak beteko ez balira.

Kirol klub onuradunek, abuztuaren 15a baino lehen, Kirol Teknikariari aurkeztu beharko dizkiote hurrengo frogagiriak (4 eta 5 eranskinak):

1. Egindako jardueren programaren memoria, ereduaren arabera (4. Eranskina)
2. 2017-2018 denboraldiko gastu eta diru sarreraren zerrenda, eta jarduerak sortu duten dokumentazio inprimatu guztia (kartelak, programak, aldizkariak, argazkiak, eta abar.) (5. Eranskina)
3. Jardueren diru sarrerak, Elkarrearen idazkariaren bitartez egiaztatuta. Bertan, jarduera bakoitzetik jasotako diru sarrera guztiak agertuko dira, hauen jatorria adieraziz.
4. Beste entitate publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzen zerrenda.
5. Onuradunaren zinpeko aitortpena, egiaztatuz zuriketarako aurkezten diren fakturak diruz lagundu den jarduerari dagozkiola.
6. Jardueren gastu guztien fakturak, ondoko betebeharrekin:
 - Jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.
 - Egilearen NA edo IFK zenbakia izatea, hala nola horren izena edo sozietate-izena.
 - Faktura zenbakia eta data, honek bat egin beharko du jarduera garatu den garaiarekin. Datek bat egin beharko dute dirulaguntza eman den denboraldiarekin.
 - Faktura bakoitzean ordainketaren bankuko frogagiriak.



kirolmank
ARAITZ-ARESO-BETELU-LARRAUN eta
LEKUNBERRIko KIROL MANKOMUNITATEA

7. Borondatezkotza-dietak edo sarien ordainketak badaude, zenbateko horien Elkarteko lehendakariaren ordainketa Ziurtagiria, horien hartze-agiriak eta bankuako frogagiriak kontzeptu horren pean ordaindu den zenbatekoarekin.

Hamaikagarren.- Ez betetzea.

Oinarri hauetan dauden betebeharren eta zehaztutakoen ez betetzeak, datuen faltsutzeak edo dirulaguntza eman zen arrazoiaren helburuetan aldaketa nabarmena egiteak, dirulaguntzaren esleipena baliogabetu dezake, jasotakoa itzultzeko beharra ekar dezake, eta hurrengo deialdietan parte hartzeko eskubidea galtzea ekarriko du. Honek ez du eragotziko, beharrezkoa izanez gero, behar diren legezko ekintzak gauzatzea.

Hamabigarren.- Datuen Babesa.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoa bete dadin, aditzera ematen zaizu deialdi honetan jasotako datuak Mankomunitatearen fitxategi automatizatu batean bilduko direla. Era berean, jakinarazten dizugu baduzula eskubidea datu horiek ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien kontra agertzeko, Mankomunitateko erregistro orokorrera joz horretarako (Burundegia kalea, 9, 31870 Lekunberri).

Hamahirugarren.- Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Lekunberri, 2018ko urtarrilaren 31ean